



195/2024 EBAZPENA, MARTXOAREN 15EKOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIARENA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIAREN MARTXOAREN 13KO 188/2024 EBAZPENA ALDATZEN DUENA. AZKEN EBAZPEN HORREN BIDEZ, DEIALDIA EGIN ZEN OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO LETRADU KORPORATIBOAREN LANPOSTUA ALDI BATERAKO BARNE-MUGIKORTASUNAREN/ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENAREN/ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEKO.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren martxoaren 13ko 188/2024 Ebazpenaren bidez, Aholkularitza Juridikoko Zuzendariordetzan (Gipuzkoa) letradu korporatibo lanpostu bat aldi baterako betetzeko deialdia egin zen, ebazpen horretan jasotako ezaugarriekin.

Deialdia egiteko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren azaroaren 4ko 4/2021 Jarraibidean ezarritako prozedurari jarraituko zaio. Jarraibide hori abokatu korporatiboaren lanpostu funtzionalak aldi baterako betetzeari buruzkoa da, eta ezartzen du berriazko deialdi bidez egingo dela, jarraibidearen beraren eranskinean jasotzen diren irizpideen arabera.

Argitaratutako ebazpenak honako data eta epe hauek ezartzen ditu:

Eskabideak aurkezteko epea, berriz, «7 egun baliiodunekoa izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera».

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari dagokionez, «Apirilaren 2an, Giza Baliabideen Zuzendaritzak, ebazpen bidez, prozesuan onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrenda argitaratuko du Osakidetzaaren web-orrian, baztertzeko arrazoiak adierazita».

Idatzizko probaren deialdiari dagokionez, ebazpenean ezartzen denez, «Proba apirilaren 4an egingo da, 10:00etan, Vitoria-Gasteizko Erizaintza Eskolan ...»

Ebazpen hori argitaratu ondoren, egokitzat jo da epea eta adierazitako datak aldatzea, prozesua hobeto gauzatzeko.

Horregatik guztiagatik, eta indarrean dauden legeek pertsonal arloan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, hau



EBATZI DUT:

Lehenengoa: Aurreko azalpenean adierazitako datak eta epea aldatzea, honako hauei dagokienez:

ESKABIDEAK AURKEZTEA

Eskabideak aurkezteko epea 2024ko apirilaren 15era arte luzatzen da, egun hori barne.

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA

2024ko apirilaren 18an, Giza Baliabideen Zuzendaritzak, ebazpen bidez, prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratuko du Osakidetzaren webgunean, baztertzeko arrazoiak adierazita.»

IDATZIZKO PROBAREN DEIALDIA

Proba 2024ko apirilaren 24an egingo da, asteazkena, 15:00etan, Gasteizko Erizaintza Eskolan (Jose Atxotegi kalea z/g, 01009 VITORIA-GASTEIZ).

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 15a.



Osakidetza
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendaria,

LUISA LARRAURI EREÑOZAGA